

EMAKUME PRESOEN AURKAKO JAZARPEN GEHIAGORIK EZ!!



2004az geroztik, Langraitz kartzelako hainbat emakume-presoen senideek funtzionario jakin batek emakume presoekin makina bat irregulartasun burutzen ari zela plazaratu ziguten. Estortzioa eta xantaiatik hasi eta -kasuaren arabera- sexu-erasoetaraino iristen ziren irregulartasunak. Ziotenez baimen bat, hirugarren gradua edo bisita bat lortzea "errazagoa" edo "zailagoa" bilakatzen zen, aipatutako funtzionario honen sexu eskaerak onartuta edo ez; Hau gutxi balitz, ukatu zirenen aurrean jazarri eta gertatua salatzen saiatu zirenak behartu eta mehatxatu egin omen zituen.

2005eko martxoan, kaltetutako emakume batek gertakariak epaitegian salatzeko erabakia hartu zuen. Salaketa honen haritik, bigarren emakume preso batek antzeko gertaerak salatu zituen apirilean, Salhaketa elkarteak kanpaina bat abian jarri zuen une berean gertaera hauek jendartean eta epaitegietan salatzeko. Hurrengo hilabeteetan beste bi emakume-presok gehitu ziren salaketa hauetara. Ibilbide judizial oso luze baten ostean epaiketa burutzekoa da azkenik, azaroaren 18an eta 19an eta Arabako Audentzia Probintzian burutuko den azhozko epaiketa batean hain zuzen ere. Bertan, 2005. urtean zehar salaketa aurkeztu zuten lau emakumeek bere ustezko erasotzailea aurkituko dute akusatuaren aulkian.

Instrukzio honek nahiz emakume presoek laguntzarako kanpaina honek fruituak eman zituen: auziperatuak bere dimisioa aurkeztu zuen Segurtasunerako Zuzendariorde moduan pasa den uztailaren 15ean, eta orduan kartzelako zuzendaria zena ordezkaturik izan zen. Guzti honek Langraitzeko kartzelatik salaketa mota hauek berriro jaso ez izana suposatzen du. Edonola ere eta A Lama, Picassent eta Mallorcako kartzeletako zenbait presok jarritako salaketak ikusirik, honakoa Estatu Espainoleko kartzeletan indarrean dirauen arazoa dela ondorioztatzen behar dugu. Horregatik, eraso hauek pairatzen dituzten emakumeen izenean zera eskatzen dugu:

- **Presoek jasaten dituzten gehiegikeriak sortzen dituen inpunitatearekin amaitzea, bai Langraizen eta baita Estatu espainiarreko gainerako kartzeletan ere.**
- **Behin behineko kaleratzea emakume hauentzat, jasan bide dituzten gehiegikeria guztiak libreki sala ditzaten.**
- **Edozein gehiegikeria mota jasan dutela frogatzen den emakumeentzat berehalako indultua, jasotako kalteen lehen konpentsazio gisa, eta egokitu ahal zaien beste ordain moral edo materialak baztertu gabe.**

Baina Langraitzen salatutako gertaeretatik haratago, egoera honek Estatu espainiarreko kartzeletan emakumeek pairatzen duten diskriminazio biderkatua agerian uzten digu. Berdintasunean oinarritutako jendarte justuago bat nahi badugu, desagertarazi beharreko diskriminazio bat. Eta horretarako, eskatzen dugu:

- **2009ko urriaren 30eko egunean Estatu Espainoleko kartzeletan preso dauden 6.145 emakumeek pairatzen duten diskriminazio biderkatuarekin amaitzeko, genero ikuspuntua jorratuko duen kartzela politiken garapena.**
- **Emakume preso hauek dauden egoeren hobetzea. Material egokia eta dagozkien profesional eta bitartekoak izango dituzten emakumeentzako moduluak, berezko azpiegiturak eta herizaindegiak sortzetik hasita.**
- **Emakume presoek dagozkien eskubideen aitortza praktikoa. Bereziki emakume eta preso izaeratik diskriminatuak ez izatera zuzendutakoak, eta hauetaz gain beste diskriminazio faktore batzuk (jatorri etnikoa, osasun egoera, amatasuna...) pairatu ditzaketenei arretoa berezia eskainiz.**

Errealitate gordin hau delituen aurkako borrokan kartzelaren porrotaren beste adierazle bat baino ez da. Oinarrizko eskubideekin kartzela sistemak duen bateragarritasun ezarena eta emakume presoek pairatzen duten sexu-diskriminazioarena. Guzti honengatik oihukatzen dugu beste behin ere:

EMAKUME PRESOEN AURKAKO JAZARPEN GEHIAGORIK EZ!!